ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE
Eusko Ikaskuntza
Sociedad de Estudios Vascos
Tomo 32. — 1984. — Págs. 31-41

XVI ETA XVII MENDEETAKO CANADAKO TERNUA ETA LABRADOR-EKO EUSKAL LEKU-IZENEN ZENBAIT BERRI

MIREN EGAÑA GOYA
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEko
ETNOGRAFIA MINTEGIKOA

«Itsasoan urak andi...»
Terranobara abia adi:
goian oztiña, beian urdiña,
ur eta ur beti...
(A. Salbatore Mitxelena, 1949)

Aitzpea eta Usueri
beraiei kendutako
denboraren ordain.

Orain dela sei bat urte, 1980.ean hain zuzen, Euskera Hizkuntza eta Kultura katedretarako prestatu behar izan nituen gaien artean, bederatzigarrenak honela zion: euskaldunak bale arrantzan, euskaldunak San Lorenzo kolkoan... Harrez geroz Piarres DETCHEVERRY-k euskaraz idatzitako liburua ikusi nahiean nenbilen, baina Parisko Bibliothèque Nationale delakora eskatu eta ez lortzean, etsitu nintzen ikusteaz; baina hara non 1985.ngo urtearen azken egunean lortu nuen azkenean gure herrian argitaratutako faksimile bat.

Artean, Selma Huxley-k antolatu eta Bilboko Merkatalgo, Industrigintza eta Itsasketa Ganbarak ordaindurik, igazko udaran Labrador-era abiatu zen Euskal Espedizioaren partaide izan nintzen. Nere betebeharra, beste batzuen artean, zera zen: egon ginen parajeko leku-izenak biltzea, batez ere euskal izenen bila. Bildu, bildu nituen, baina jasotako guzia igelesa zen, ez zuten laga gure arrantzaleek ahoz mantendu zen leku-izenik gu egon ginen lurraldean. Euskal leku-izenak dokumentu, nabegazio karta eta zenbait bidai liburuetan besterik ez da agertzen zoritxarrez.

Euskalerrira itxuli eta esku artean nuela uztaileko National Geographic aldizkaria, bertan lan luze xamar bat agertzen bait da gure balearrantzaleei buruz, zekarren XVI mendeko mapa batez ohartu nintzen.

Mapa begiratzen ari nintzen bitartean, gogoan nuen nere adiskide den Mikel Erriondo-k duela urte batzuk esandakoa baleei buruz. Oso itsaszalea den lagun hau, behin itsas zabalean zegoela motorra betean San Juango arrantzaleak bale bat ikusi orduko «SERIA!, SERIA!» omen zion. Gero gogoratu nuen Hondarribian ba zela SERIA izena zuen jatetxe bat, bai eta bere atalburuan bale baten irudia ere. Herrian galdetu ondoren, SERIA omen da baleak izendatzeko erabiltzen den izen arrunta eta ez BALEA. Jatetxeari buruz, Seria deritzanari buruz, alegia, arrantzale auzo zaharrean kokaturik dago eta bale hezurren gainean eraikita dagoela diote.

Pierre DESCELIERS-ek 1546.ean egindako munduaren mapan LES CHATEAUX baino askoz gorago, ifarrerago agertzen da B. de SERIA deritzan lekua. Badirudi ba, Hondarribiako edo San Juango bale arrantzaleak XVI mendean lurralde haietan egon zirela eta bere euskalkian edo zehatzago bere hizkeran balearen izenez, SERIA, alegia, ezagutzen zela paraje hura. Interesgarria litzateke leku hori gaur egun kokatzea.

Piarres DETCHEVERRY «DORRE»k bere «LIBURU HAU DA IXASOKO NABIGACIONECOA» deritzan liburuan zehazki aipatzen ditu Europako itsasertza gehienak, bai eta TERNUAKOAK

(Terranoba) ere. Lan honetan, Euskalerriko leku-izenak han hemenka ematen dituenak bide edo arruta ezberdinetan eta Ternuakoak bakarrik saiatuko naiz aztertzen. Lehenbizikoak segidan emango ditut ifarretik hasita, Ternuakoak berriz berak eman dituen arrutak errespetatuz zerrenda orokor batean, eta gero euskaldunak direnak bakarrik. Leku-izen hauek, deklinabide atzizkiz datoz liburuan, normala den bezala, hala nola Donostian, Donostiatik etab. Lekukotasuna adierazten duten atzizkiak dira gehienetan agertzen direnak: -ko, -go, -etako; -rat, -etarat; -raino, rainno, -etaraino; -tik, -dik -etatik, -tikan; bai eta -k ergatiboa ere. Ahal delarik deklinabide atzizkirik gabe ematen saiatuko naiz, bai Euskalerriko leku-izenak bai Ternuakoak. Izen hauek, euskaldunak noski, Detxeberrik dakarren grafian eta gaurko grafian emanen ditut.

Euskalerriko leku-izenak

BAYONA	BAIONA
BOCAL ÇAHARRA	BOKAL ZAHARRA
DONIBANE	
IGUERECO PUNTA	IGEREKO PUNTA
HONDARRABIA/ ONDARRABIA	HONDARRIBIA
IGUER	IGER
AMUISCO PUNTA	AMUITZKO PUNTA
PASSAYE	PASAIA
DONOSTIA	
QUETHARIA	GETARIA
SANTANTONGO IRLA (GETARIA)	
MOUSTRICOU/ MUTRICO	MUTRIKU
LECATU	LEKEITIO
ONDARROA	
BERMAYU	BERMEO
MUNDACO ARROCCA	MUNDAKAKO ARROKA IZARO? OGOÑO? STA. KATALINA?
MACHICHACO	MATXITXAKO
PLAZENCIA	PLENTIA/GAMINITZ
QUECHO	GETXO
PORTUGALLETA	PORTUGALETE

Getaria aipatzen duen aldi horietako batean BALEAC, Frantziako leku batekin elkartzen du, gauza bera egiten du Santoña eta San Vicente de la Barquera-rekin ere. BALEAK leku hori Bordeletik gora litzateke eta Frantziako graduak izendatzen dituenean BALETAKO BURUA bezala agertzen da.

Ternuako graduak

ESCATARI edo CAP DE BERTON	IRLA DE FOGO
SEN PIERETACO IRLAC	COROUESCO IRLAC
CAP DE RAS	IRLE DUC
URRUÑUS	CAP DE SEN IEAN
IRLE DESPERA	IRLA DE CHIBAUX
CAP DESPERA	GROYA ETA BELILA
CAP DE CONCEPTION	SEN IULIAGO HAURA
BACAILLAUCO IRLA	CAP DE GRAT
CAP DE BONE-BISTA	BELILA BAYA ERDIANDENA
FRAY-LUISCO IRLAC	CHATEAU ETA CROIX-BLANCHE

Ternuako arrutak, leguak, sonda, entrada eta portuak

ESCATADI
CAP DE BERTON
IRLA DE SABLAT
MIQUETONGO entrada
MARTIRIS
CADARRI
COLUNBIA
MIQUELU
SEN PIERETACO IRLAC
BELINgo portua
SEN LAURENS
SANTA MARIA
PLACENÇA
BURUA
PUNTA MEHEA
PORCHETEN GRAT
PUNTA FERDE
PLAÇENÇA CHIPI
CHONBRELLUA
BURUCO BACHA
CAP D'ARRAS
CAP DE PENA
SENT PIERRE
TRES-PAS

Cap d'Arrastik
Cap de Graterañoko arrutak

CAP D'ARRAS
URRUÑUS
FERMUS
FORT LOU
FIRILLON
IRLA-DESPERE
baya DEBUR
PORT D'ESPERE CHUME
CAPBRULE

CAP DE S. FRANCOIS/FRANCES
BAYE BUT
POR-NIAUT
PORT-NIAUT
BACAILLAUco irla
baya DELATIN
CAP DE BONEBISTA
baye d'ANGLOIS
cap de SELOC
baye de CORGES
cap de TAULINGET/TALINGET
irla de AUX APOIRS
boye de NOTRE-DAME
cap de S. IEAN
baya BERTCE/BAIABERT
LEFLURDELIS
ORANGE
FURCHET
SANSUT
CANARIE
DEGILLETE/LEGULLETE
BUTILLU
LACONCHE
CARUGE
PETIT-METRE
IRLA DE GROY
BELILACO irla
S. IULIEN
FICHOT
PETIT OBES
GREMELLIER/CREMELLIERE/GUERMELLIERE
GRIET
ZERPU/QUERPU
cap de GRAT

Capen-rugetic cap de Grateraiñoco leguak

CAPEN-RUGE
PETIMETRE
SEN IULIEN
PECOSco irla
GROSSE MUNTAINE
GRANELERIE
port de SAUBU
CHEINE
cap de BLANQ
baya DROGE
CARBONAR/CARBON
cap de GRAT
IRLA HANDI
IRLA CHUME

Cap Gratetic Grambayaco irletako arrutak

Cap de GRAT
BALSAMU
CHATEU
baya de SAQURE
PUNTA ARRASOA
BOITUS/BOATEUS/BOATUSS
BELILA athecoa
BELILA baya erdiandena/baya erdianden BELILA
Irla CHUMEA (Chateu-n)
FLORSco irla (Boatus-en)
BOATUSco IRLA HANDIA
BALEA PORTU
LABEAC
SEMADET
LAUFORTE/LEAUFORTE
BALSAMU
BERILA
Irla DANFER
BREST
PUNTA MEHEA
DROGE
GRADUN
SASCHO BODEGUE
BREST

Cap d'arrastic bacaillauraino

Cap DARRAS
URRUNUS
FERMOSA
FORT LEOU
FIRRILLON
Irla DESPERE
Baye de BUR
Port DESPERE CHUME
Port de SEN IAN
Cap de CONCEPTION
BACAILLAU

Cap de Bretondic edo Escatarietatic cap de Graterainnoco portuak

BACALLAU
CONCION (Conception)
Cap de BONEBISTE
Irla de CORQUES
Irla de FOGOS
FOGOSko burua
Irla de PINGUIN
SEN IANgo burua
Irla de CHIBAU
GROIA
BELILA/BERILA
FORDELIS
CAPENRUGES
Cap de GRAT
baya erdianden BELILA
CHATEU

BOITUS
CHACHO BODEGUE
GRADUNgo portua
SEN PIERETAKO irlak
COLONBIA (Sen Pierretako irla)
Irla BERDEA (Sen Pierretako irla)

Sen Pierreetaric cap de Graterainnoco çundac

Cap d'ARRAS/CADARRAS
CONCEPÇION
Cap de ESPERA/d'ESPERA
BACAILLAUco irla /BACAILLAUco bancua
SEN IANgo burua
GROIA/GROYA
BERILA/BELILA
BONEBISTA
Irla de CHIBAUS

Ternuaco portutaco arrutac

CADARRAS
SANTA MARIA
PLAÇENÇA
BACAILLAUco irla
URRUÑUS
Cap de BONE-BISTA
FOGOSco irlac
CORQUESco irlac
CORQUESco portua
GROIA
BERILA
Irla de CHIBAUS
CHENEco portua

Ternuaco portutaco entradac eta arrutac

SANTA MARIA
TRESPAS
URRUÑUS
FORMUS
PORT-LEEU
FIRRILLON
Port de SEN IAN
Irla de CORQUEZ
Port de SEIE
Port de BASQUE
FORDELISco portua
CANBOIT
CAPEN-RUGE
PETIT-METRE
SEN IULIAN
GRAMAILLER
Irla de PECOS
PORT-SABUCO
Port de CHENE
CAP-BLANCO
OGERco baia
CARBON
Cap de GRATE (entrada bat)
Cap de GRATE (beste entrada bat)
SEQUER
CHATEU
BOITUS/BOITUSS
BALEABAYA/BALEA PORTU
LABEAK
SEN MADET
BALEETACO BAYA
BALSAMU
Irle d'ANSEN
Irla de BOIS
DROGET
GRADUN
CHACHO BODEGE
BREST
CARBON
GRANBAIA

Sen Pieretaric hasy eta cap de Graterainnoco arrutac

SEN PERREtaco uesteco burua
ANGUELETERRAco uesteco burua
CADARRAI
IRLA CHUMEA
PORTU CHAR
ULICILLO/ULICILHO
BARRATCHO
UR CHUMEA puntaco harea
SEN GEORGE
OPORPORTU
BURU HANDIA
OPORReco baya
BARRACHO
OPORPORTUCO BARRATCHOA
TRES Irlak
GRAT
BARRATCHEO (Oporpotutik lehenengo burua omen da)
FRAIDEco burua
BAYA CHARRA
PORTUCHO
BAYA EDERRA
AINGURA CHARRECO PORTUA
IRLACHOAC (Irlachotarainno)
BLANCHADIco punta
BARBORT CILLHO/BARBOT CHILLO
PORTUCHO ÇAHARRA
Irla de SEN IOAN/SEN IANGO Irla
AMUITS/AMUIXco punta
FERROL
FERROL ÇAHAR

ETCHAIRE PORTU (horrela deiten omen dute espanolec Ferrol)
BURUARRASSOA

Cap de Raitic Irla de Perça

Cap de RAY
CHORITACO IRLAC
SANTACURUTS alderat
NATISCOT
Irla de CAPUSALL
Irla de PERCE/PERÇA erdian zulatua omen da)
FORCEMOLUECO Irla chumea
FORCE-MOLUECO PUNTA
CAISPE
CAISPECO PUNTA
CHEGOANCHIS/CHIGOANCHIS
KARAKIK
CHEQUEN
PECEBIAC
ESTANCIA
PECHEGUY
PINNALAC
CHANALLA

Detxeberrik emandako euskal izenei buruz ohar batzuk

BOKAL ZAHARRA.—Gascoineko «boukau»tik dator bokal. Ibai batek itsasoratzean osatzen duen zabalgunea. Baionako Aturri ibaiak itsasoratzeko lekua aldatu zuen. Hortik Bokal zaharra.

IGER eta AMUITZ.—Hondarribian kokaturik dauden bi leku dira. Lenengoa Igerko punta bezala ezagutzen da gehien, bai eta «Cabo de Higuer» erdal deiturarekin ere.

PASAIA.—Gaur egun hiru herriz osatutako leku honek, Pasaiko San Juan, Pasaiko San Pedro eta Pasai Antxo alegia, bere izena zerari zor dio: Oiartzun ibaia itsasoratzekoan zabaldu egiten da eta ertz batetik bestera pasatzeko bide bakarra ura zen. Pasatze honi eta ordaindu behar zen zergari «passage, pasaje» esaten zitzaion. Hortik datorkio herriari izena.

DONOSTIA.—Euskaraz ari denez normala den bezala ez da agertzen erderazko San Sebastian.

SANTANTONGO IRLA.—Ez da ugarte bat benetan, Getariko xaguaz ezagutzen den menditxoa baizik. Menditxoaren gainean San Antongo baseliza bat zegoen lehen.

MUNDAKO ARROKA.—Mundakako arroka beharko lukeela dirudi. Hala baldin bada Lamera punta, ala Ogoño haitza izan daiteke.

Ternuako leku-izenak

ESKATADI, -RI.—Euskaraz ohi den bezala nahasian erabiltzen dira /-r-/, /-d-/ hotsak e.b. gaztedi, gazteri.
Kasu honetan Eskatadi izen berezi bat bezala erabilia izan dela dirudi.

CAP DE BERTON.—Kontsonante trabatuak ez ditugu oso gogozkoak euskaldunok, e.b. ingelesa, giristinoa. Hemen ere badirudi Breton beharko lukeela, Baionatik goraxeago dagoen Cabreton edo gogoratuz.

URRUÑUS.—R. Bélanger-ek dionez euskal izena izan daiteke. Urruñe herrixka Donibane eta Ziburutik gertu dago, itsasertzatik urbil beraz.

BAKAILAU.—Eztabaidatua izan den arrai-izen honek ez du antzekorik euskararen ondoko hizkuntzetan, ez frantsezez ez gazteleraz. Frantsesez «morue» eta gazteleraz «abadejo» dira gaur egun arte mantendu diren hitzak. Portugesez, catalanez eta italieraz agertzen da gurearen antzeko hitz bat. J. Corominas-ek beste teoria batzuen artean euskaratik etorri daitekela dio. Makailua, makailaua, bakailua, bakailaua dira euskaraz agertzen diren deitura arruntenak.

BELILA BAIA ERDIAN DENA.—*Baia erdian den Belila* bezala ere agertzen da. Bi *Belila*, bata bestearengandik gertu aipatzen ditu Detxeberrik. Gaur egun *«Etroit de Belile»*-ri izena ematen dion Belile ugartea da. Honi deitu dio gure idazleak *«Baia erdian den Belile»*. Beste *Belile* berriz, gaur egun BELL ISLAND deritzana da. Ternuaren Ifar-ekialdean Groia ugartearen ondoan dago.

SEN PIERETAKO IRLAK.—Oso bitxia da idazleak behin eta berriz pluralean ipintzea Pierre izen berezia.

MIKELONGO ENTRADA.—Mikele portu, Seoanek, Ciriquiainek, Belanger-ek eta Arrindak euskaldunen kai bat bezala aipatzen dute.

PLAZENTZA.—Placentia, Placencia, Plasentia, bezala aipatu dute Seoanek, Lhandek, Ciriquiain Gaiztarrok; Bélanger-ek eta Arrindak onartzen dute Bizkaian dagoen Plentzia-k zer ikusia baduela leku-izen horretan.

PUNTA MEHEA.—Plazentza ondoan dagoela dio eta dirudienez punta zorrotz bat da.

PUNTA FERDEKO BAXA.—Lapurteraz berde hitzaren haserako /b-/ maiz /f-/ agertzen da kasu honetan bezala.

PLAZENTZA TXIPI.—Gure idazlearen garaian bi Plazentza zeudela dirudi. Plazentza eta antzeko beste txikiago bat Plazentza txipi. Txipi ekialdeko eta ifarraldeko euskalkietan, gip. txiki, bizk. txiker. Seoanek Petit Placencia bezala aipatzen du.

BURUKO BAXAK.—Buru maiz erabili ohi da leku altu bat, zerbaiten goikaldea izendatzeko, hala nola Herpuru, Etxaburu, Mendiburu etab. Ternuako kasuan ez dago argi honela den edo kostaldeko leku babes bat adierazten duen. Askotan kai hitzaren ordez erabilia dela dirudi. Ikus 128 or. «Tres irletako burua». Aurreago agertuko dira BURU HANDIA eta BURU ARRASOA.

BURU HANDIA.—1781.eko irailean Bilbon agertzen diren R.S.B.A.P. delakoaren Batzar orokorren laburpenetan BURUXUMEA eta BURU ANDIA Ternuako lekuak bezala agertzen dira. Ciriquiain-Gaiztarrok eta Lhandek ere aipatzen dituzte, baita Arrindak ere. Bata bestearen oposaketa litzateke Handi Xume (eskas, txiki).

BALSAMU.—Ongi mantendu da latinetik datorren mailegu hau. Frantsesez **beaume** eta gaztelaniaz **balsamo** aurkitzen ditugu. Leku hau oso zaharra dela dirudi, idazleak «betidanik deskubritua» dio eta.

PUNTA ARRASOA.—Gainean deus ez duena dirudi. Erdal hitzak dira biak, gure euskal hiztegian onartuak.

BELILA ATHEKOA.—Baia baten atean, irtenbidean edo, dagoela dirudi Belila hau. Ez dakigu zeini dagokion.

BALEA PORTU.—Leku hau ez dago Ternuako kostan, Labrador-ekoan baizik. Badirudi gure arrantzaleak gehien mugitu ziren lurraldeak Ternuako mendebaldekoetan eta Labradorreko hegoaldekoetan izan zela. Leku izenek horrela diotela dirudi behinik behin.

Hau dela eta, gainera oso zehazki ematen duelako Labradorreko hego aldeko itsasertza zati txiki hori; zer dion aztertuko dut. CHATEU (gaur Henley Harbour) eta BOITUS (gaur Red Bay) lekuen artean ez omen dago porturik ontzia gelditzeko, erdian punta bat omen dago, baina hura ere oso leku txarra dela dio, ez dago beraz kairik bien artean. Gaur egun ere ez dago ezer bi leku hauen artean.

BOITUSen bi irla aipatzen ditu, *Irla Handia* eta FLORSKO irlak. Nere iritziz *Irla Handia* SADDLE ISLAND da eta FLORSko irlak berriz TWIN ISLAND. Paraje hauetan eta irla hauetan zuzenki, agertu dira euskaldunen aztarna nagusi batzuk. Oso interesgarria da baita ere, CHATEUren egiten duen deskribapena: «badu mendi handi bat danak baino handiago eta mendi honek ditu bi eskatadi» (ez dugu inon aurkitu hitz honen esanahia, baina bertan egon eta gero han dauden bi basaltozko batolitoak direla iruditzen zait).

CHATEU eta BOITUS artean ez omen da oihanik ekialdean, bai berriz Boitustik urbil mendebaldeko partetik, han bada oihan handi bat eta handi izanen da Boitusko portua, dio. Horrela da, gaur egun ere RED BAYren mendebaldean baso handi bat dago PIN-WARE deritza.

BALEA BAIA.—BOITUStik urbil omen dago eta BALEA PORTU deitzen dutela dio. Dudarik gabe hau euskal izena da. Bi hitzok maileguak dira, baina biak euskal fonetika ongi mantendu dute eta bien joskera zuzena. Barkham-ek jasoa du Balea Baia.

LABEAK.—LABE ETARAT, LABE ETARIC. Argi dago pluralean deklinatua dagoela labe hitz hau. Hala ulertu izan da beti gainera, behin baino gahiagotan agertzen bait da leku hau «LOS FORNOS» bezala mapa zaharretan. Gutxitan agertzen da horrelako kasu bat toponimian, bi hizkuntz hain ezberdinetan esanahia bera agertzean. Barkham-ek Labeeta aipatzen du.

BALEETAKO BAIA.—Berriz ere baleak, orain pluralean eta bizigabeak bezala, *-ko* atzizkiz, Leku hau SEN MADET baino behergo zegoen.

IRLA BERDEA.—mailegu hau, batzutan ferdea bestetan berdea agertzen zen landareen koloreetatik edo irten bide da.

PORT DE BASQUES.—Frantsesez agertzen den leku-izen honek gure, euskaldunon erreferentzia egiten du.

OGERKO BAIA.—OGER, OIHER, bazterreko lurraldea, ospelean dagoen lurra, hotza den lurraldea dio Lhandek. Izan daiteke ospelean dagoen kolko txiki bat.

BALEA PORTU.—BALEA BAIAren parekoa da. Idazleak dioenez BALEA PORTU izen honekin ezagutzen zen leku hori.

IRLA ARRASOA.—Deusik gabeko irla. /r-/ gogorrez hasten diren maileguetan euskaraz /e-/

edo /a-/ aurrebokal bat hartzen da kasu honetan bezala.

PORTU TXAR.—Ona ez den kai bat adierazten du izen honek. Idazleak ez digu honelako esplikazio bereizirik ematen.

ULIZILOKO PORTUA.—Lapurteraz ohi den bezala EULI>ULI eta ZULO>ZILO ZILHO, ZILLO. Zulo bezala ezagutzen dira itsaskolko txikiak. IRU-TXULO bezala ere ezagutzen da DONOSTIA e.b., bere hiru kolko txikiegatik edo, Ondarreta, Kontxa eta Zurriola. Seoane-k ULCILO bezala dakar lekuizen hau.

OPOR PORTU.—R.S.B.A.P. delakoaren 1781.eko Batzar Orokorren Laburpenean agertzen da. Lhandek OPHORPORTU, Seoanek PORTU OPOR eta Bélanger eta Arrindak gaurko PORT A PORT dela diote.

OPORREKO BAIA.—Aurrekoaren ondoan degoela dio idazleak.

BARRATXOA.—Maiz agertzen da lekuizen hau liburuan zehar. Barra-txo-a txikitasuna adierazten duen atzizkiz. Gaur arte mantendu da Ternuako kostaldean zehar BARRACHOIX grafiaz. Bélangerek eta Arrindak aipatzen dute honelako izen bat baina ez dakigu leku berari dagokion.

OPORPORTUKO BARRATXOA.—Ematen dituen zehaztasunez leku hauek oso erabiliak ziren Detxeberriren garaiean, Labradorrekoekin batera. Bi paraje hauetan euskal lekuizenen kopuru haundiena agertzen bait da.

FRAIDEKO BURUA.—Fraide erlijioan sartutakoa izendatzeko erabili ohi da. Hemen bizigabeen *-ko* atzizkiz BALEETAKO kasuan bezala. Berriz ere BURUA nere iritziz portu bezala.

BAIA TXARRA.—Idazleak adierazten dituen zailtasun eta oztopoengatik edo, emango zioten izen hori noski.

PORTUTXO.—Txikitasuna adierazten duen atzizkiz = Portu txikia. 1781.eko aipaturiko Laburpenean agertzen da. Seoanek, Lhandek, Ciriquiain-Gaiztarrok, Bélangerek eta Arrindak ere jaso dute. Bélangeren iritziz gaurko PORT A CHOIX da gure PORTUTXOA.

BAIA EDERRA.—Baia haundia dela dio idazleak. Jakina da ederrak zentzu bat baino gehiago duela euskaraz eta haunditasunarena da horietako bat. Seoanek aipatzen du.

AINGURA TXARREKO PORTUA.—Ontzietan erabiltzen den aingurari zor bide dio kai honek izena. Seoanek ANGUCHAR eta Bélangerek eta Arrindak aipatzen duten ANGUACHAR izan daiteke gure AINGURA TXAR.

IRLATXO.—Txikitasuna adierazten duen atzizkiz hau ere. Irla txiki.

ATHERENEKO PUNTA.—Ate, itxitura egiten duen punta.

BARBORT ZILHO/BARBOT XILLO.—Arrindak jaso duen BARBA ZILHO izan daiteke.

PORTUTXO ZAHARRA.—PORTUTXOtik BARBOT ZILHOra musketa (erd. mosquete) tiro baten arrastoa omen dago, bai eta beste hainbeste BARBOT ZILHOtik PORTUTXO ZAHARRera. Oso gertu daude ba beraz hiru kaiok.

IRLA DE SEN IANGO IRLA.—Hemen argi dago bi hizkuntzen interferentzia. IRLA DE SEN IAN ala SEN IANGO IRLA. Zerbait ba, sobran da.

AMITS, AMUIX.—Hondarribian dagoena eta idazle berak aipatzen duena gogora arazten digu.

FERROL ZAHARRA.—Lehengo deiturak Galizan dagoen *Ferrol* oroitarazten digu. Adjetiboak bi FERROL salatzen ditu, biak ez badira agertzen ere, bata FERROL, bestea berriz antzinakoa, zaharra. Honi buruz zehaztasun bat dio idazleak, españolek deitzen dute ECHAIRE PORTU. ETXAIDE PORTU, aipaturiko 1781.eko laburpenean agertzen da eta Donostiar batek aurkitutakoa omen da. Ciriquiain-Gaiztarrok, Bélangerek eta Arrindak ere jasotzen dute. Bertan delak egiten omen zituzten dio idazleak.

AMUIX, FERROL IRAGAN ONDOKOA.—AMUITZ izeneko leku bat baino gehiago salatzen du zehaztasun honek. Honela dio hitzez hitz. «Halaber iakin behar duzu PORTUTXOATIK eta FERROLic artean den AMUIX eta bertze AMUIX FERROL iragan ondokoa eta FERROLdik»... Eta aurrerago: «FERROLez nordestetik den AMUIXek ba dituela bi baxa...»

XORITAKO IRLAK.—Xori/txori. Abere bizidun hau berriz ere *-ko* bizigabeen atzizkiz.

SANTAKURUTS ALDERAT.—Euskaraz egin ohi denez eta lehenago aipatu bezala trabatutako kontsonanteak ez ditugu gogozko eta bokale baten bidez disimilatu egiten da taldea. Lat. croce(m)>kurutz/gurutz. Hemen beste zenbait lekutan bezala nabarmentzen da aldi-artan ere erlijioak zuen garrantzia, Santa Maria, San Franzes, San Iulian, Sen Iian, Santa Kurutz lekuko.

IRLA DE PERÇA/PERCE.—Frantsesa den izen hau oso ongi esplikatzen du idazleak eta horregatik aipatu nahi dut. Irla haundi bat omen da erdian zulatua, hortik, frantsesetik, percer= zulatu.

KAISPE.—Kerizpe hitzaren aldakin bat izan daiteke. Horrela balitz babesa, aterpea adieraziko luke. Gaur egun GASPE lekuizen bat bada Quebec-eko probintzian. Behar bada leku bera da, oso bitxia bait da amaierako *-pe* hori mantentzea frantsesa egiten den leku batean, jakina bait da bukaerako /-e/ horiek mututu egiten direla hizkuntz horretan.

Badira gure idazleak aipatzen ez dituen beste zenbait lekuizen, erabilitako bibliografian jasorik, interesgarriak direlako aipatu nahi ditut.

SAN LORENZO XUMEA, SAN LORENZO ANDIA. 1781.eneko Laburpenean.

L'ECHAFFAUD AUX BASQUES, L'ILE AUX BASQUES. LHANDE.

CHASCOT PORTU, ANTON PORTU. BELANGER.

BAYE DE BISCAYE, BIZKARRA, IFFERNUA, ILLARRETA. ARRINDA.

Lanaren zehar gure iduriz zenbait hitz berezi agertu da. Detxeberrik erabiltzen duen hiztegiko hitz eta espresio batzuk eman nahi ditut lerro hauetan eta beraien urbiltze bat egin, ez bait dira gure hiztegi klasikoetan den denak agertzen.

Lehenengo eta behin, lurralde haietan topatzen zituzten txoriak izendatzen ditu idazleak. Interesgarria iruditzen zaidalako laburpen bat ematen dut, gai horretaz ikasi duenaren ikerketa serioago baten zai.

Zankuko txorien ezagutzak

— Ternuako leihorretikan 110 lekoetarat kausituko duzu txori beltz handi batzuk ... ezin bola baitatesque ... eskaldunek deitzentuzte *DUCAC*.

— Txori txuri hainitz eskualdunek deitzentuzte *USSOAC* (usoak).

— Xori beltz batzuk zeinak baitute moko luxea eta sabel xuria.

— *POTORRO* flotak, 8 edo 10 edo 12 edo gehiago tropa bakotxean. Hiztegietan Potorro eta Pottorro agertzen dira. Azkuek bilduak dira biak eta bi kasutan itsas txori bat izendatzeko erabiltzen dira. Potorro bizkaieraz arroketan bizi den itsas belea. Pottorro berriz gipuzkeraz itsasbelea. Lhandek Pottorro bakarrik dakar bere hiztegian eta lapurteraz usoaren antzekoa eta Potorroaren desberdina den antxeta bat dela dio.

— Xori xuri handi batzuk *MARLOINNAC* baino handiagoak eta lepho luzeak zeinak deitzen baituzte eskaldunek *GORRAC* (gorrak). Bai Azkuek eta bai Lhandek jaso dute hitz hau arrainez bizi den txori baten deitura bezala. 1656.enean Sylvain Pouvreau idazleak erabilia da. *Marloin*, aipaturiko bi idezleek jaso dute; esanahia zera da: txikienetako den antxeta edo kaiua.

— Baita halaber xori beltz batzuk zeinek baituzte xango gorriak, zeinak deitzen baituzte eskaldunek *CHUCUTUN CHORIAC*. (Xukutun xoriak). ez dut ezer antzekorik aurkitu hiztegietan, ez eta Harriet-en hiztegian ere.

Detxeberrik erabilitako zenbait espresio eta hiztegi xorta emango dut ez bait dira gure hiztegietan azaltzen kasu batzutan eta beste batzutan nekez asma daiteke haien esan nahia.

ABABOR.—111. Ontzietako hitz teknikoa. Gaztelaniaz *«a babor»* espresioa.

ABUSTA.—127. Neurri bat izan bide da. «Abusta bat zabal».

AITCEN GUIBELETATIC.— 130. (Haitzen gibeletatik). Aztertutako orrietan hemen bakarrik erabiltzen du *haitz* eta ifar eta ekialdeko euskalkietan erabili ohi den bezala *gibelean=atzean*.

ANCRAÇOINNAC.—132. Beste kasu batzutan bezala euskaraz erabili ohi den hitza erabili ordez (hemen *aingura*) erdal hitza nahiago du.

ARRADA.—133. /r-/ aurretik /a-/ edo /e-/ hartzen dute kontsonante dardarkari gogorrez hasten diren maileguek: *a*rrosa, *e*rrota, *a*rroka...

ARROLA ARASTEN.—133. Lhandek dioenez zeharka ibiltzea da arrola arazi, zig-zag edo delakoa egiten.

ARRUTA.—108. ikus. «arrada». erderazko «ruta», ontziek eramaten duten itsasbidea.

BAYA.—115. (baia) itsas-kolko bat adierazteko darabil mailegu hau.

BANCARRE.—119. Ez dugu horren antzekorik topatu. Behar bada itsas-gainean egon ohi diren jela puskak edo izendatu nahi zituen. Frantses-ez «banquise» erabili ohi da paraje haietan egoten diren jela haundi horiek (iceberg) izendatzeko gaur egun.

BANCQUAS.—129. Detxeberrik, berak argitzen du «bankaz edo haizea kontra» bait dio.

BACHA.—107. (baxa) Azkuek dionez itsasoan dauden hondar-pilak dira.

BACHAMAREA.—125. gaztelerazko mailegua darabil behin eta berriz.

BERGES.—124. «edo kosta» dio idazleak. Aztertutako orrietan behin bakarrik erabiltzen du *berges* hitz hau, Frantziako kostaz ari denean aldiz, ia beti erabiltzen du hizkuntz hortatik hartutako mailegua.

BEGUIRAUTCU IOTATETIC/BEGUIRAUTCU HURBILCETIC.—111, 113. Harriet-ek erabiltzen ditu lapurteraz horrelako espresioak.

BERAC JO.—116. Espresio hau ez dut aurkitu erabilitako hiztegietan, oso itxura arrunta izan arren. Gaztelaniaz «dar en los bajos».

BESSO.—130. «Sei beso ur», argi dago gure idazleak *brazaren* ordez erabili duela bere euskal itxulpena «besoa». Behin bakarrik agertzen da.

BLANCHADI.—130. Bere itzulpena eman duelako ipini dugu lekuizen hau hiztegi honen zerrendan «blanchady... icussico duçu bera çury-churia...»

BRAÇA.—117, 118. erdal hitza neurri hori emateko erabili du behin eta berriz idazleak.

BURU.—104, 107. Leku nagusitzat, lekuizen berezitzat alegia, hartua izan da Canadako lurralde haietan. Ez dago argi zeri deitu nahi zion *buru* Detxeberrik, baina kasu batzutan kaiaren ordez erabili duela dirudi, beste batzutan berriz leku altu bat bezala «buruaren azpian» dioenean e.b. Lhandek *kaia buru* kaiaren muturra bezala ematen du. Honela baldin bada, Detxeberrik elipsiaren bidez hitzaren bigarren zatia besterik ez du erabili, ez dezagun ahantz bestalde gure idazleak itzulpena egiteko erabilitako liburua: «Les Voyages avantvrevx dv capitaine Martin de Hoyarsabal, habitant de Çubiburu...». Ziburu herri-izenean bada, *buru* agertzen da.

CAYA.—11, 133. Oso gutxitan erabiltzen du Detxeberrik kaia hitz hau. Badirudi portua nahiago duela.

CAYAREN TREBESSERAT.—130. Kaiaren zehar edo atzekaldean esan nahi bide du espresio honek. Beste kasu batzutan «irlaren trebesean».

CANTALA.—129. Lhandek dioenez ertza, muturra, punta. Horrela erebilia dagoela dirudi, zentzu horrekin alegia.

CASSEANDO.—125. Ez dugu aurkitu hitz honen esanahia, baina bere egituran *-ando* amaiera gaztelaniazko gerundioena da.

CERTANA.—115, 125... Azkuek lurralde, leku (país, región) bezala ematen du; Lhandek berriz, Harrietek lehorra (terre ferme) bezala erabiltzen duela dio. Guk ez dugu topatu Harrieten hiztegian. Detxeberrik lehorra bezala erabiltzen duela dirudi.

COSTA.—124. Badirudi idazleak nahiago duela gaztelaniazko mailegu hau euskal hitz jatorraren ordez Axularrek ere erabiltzen du.

COSTEANDO.—108, 128. Gaztelaniaren interferentzia. Ikus. *casseando*.

CURRY EGUIN.—127. Korri egin.

DIRE PORTUAC ORAY NOMATUCO DITUGUNAC.—111. Esaldi guzia erromantze hizkuntzaren kalko bat besterik ez da. Gainera *nomatu* frantsesetik hartutako mailegua.

EGUIÑEN DIOCU AMOR ISTIBORRECO HAREASCO PUNTARY APUR BAT.—125, 126. Ontzia mugitzeko egin behar den mugimendua (maniobra) noski. Amur eman gaur egun Bermeon.

ENTRADA.—127. Sarrera ordez darabil gehienetan mailegu hau.

ERREQUISTA.—111, 121. «eztute errekistarik entradan». Badirudi atentzioa deitzeko den zerbait. Nafarreraz *errekesta* pertsona batek edo gauza batek atentzioa deitzeko duena.

ERREMULIA.—gaztelaniaz «remolino». Ikus *arrada*.

ESCATADY.—116. Ez dugu honen esanahirik aurkitu hiztegietan, baina egiten dituen deskrizioetatik mailoak antzeko haitzak izan daitezke. E.b. Chateu, Chateux-en deskribapena egiten duenean zera esaten du «mendi altu bat dago bi eskatadikin». Dudarik gabe zera adierazi nahi du, leku horretan gaur Henley Haubour) bi ugartetan dauden batolitoak, basaltozko bi tontor alegia.

FAÇOINNEZ.—134. Frantsesetik hartutako mailegua. Eraz behar luke.

GABAREN PASSATCECOTS.—129. Lapurteraz hain jatorra den esaldi hau, joskera hau aipatu nahi izan dugu. Beste euskalkitan *gaua pasatzeko*.

GARABI.—115. Azkuek eta Lhandek paketeak jasotzeko igongailua bezala bildu dute. 1656.an

S. Pouvreau-k ere erabili zuen. Ez dugu uste Detxeberrik zentzu horretan erabiltzen duenik, ezin asmatu dugu zer esan nahi duen zehazki.

GARRAYOA.—135. «txaluparekin edo garraioarekin» dio, leku batetik bestera mugitzeko behar den ontzia adierazteko.

GOAYAC.—112. Azkuek dioenez itsas korronteak dira, eta horrela erabiltzen du gure idazleak. 1599.eko Tolosan egindako dokumentu batean *GOAGE* azaltzen da antzeko zentzu batean. 1669.ean Joanes Etxeberrik *goaja* dio.

HAREA CHEHEA MESCLATUA ARTHO CHEHEA BECALACOA ETA LARRIAGOA ERE.—117. Esaldi honetan bada zer esan franko, alde batetik harea eta ez hondarra, hau normala da Lapurteraz, bestetik mezklatua eta ez nahasia ikusten da behin eta berriz maileguak hartzen dituela gure idazleak. «Arto xehea» erderazko *mijo millet* edo izendatzeko noski.

HARTU HAICE LARGOA ETA MAREA.—136. Hemen ere ontzietan ibiltzen direnen hiztegi teknikoa.

HEGOA.—115, 125. Gutxitan erabiltzen du idazleak jatorra den hitz hau, honen ordez *suduest, sud*, eta horrelakoak ikus daitezke. Nahasian ere erabiltzen du «hegoan suestean laurdenean» edo «Cadarrayko hegoako burua».

HEQUIEN.—114, 129. Lapurteraz *haien*.

HEREN.—105. Lapurteraz hirutatik bat Harriet, Lhande eta Axularren liburuetan.

HIRUR BRAÇA UR«—130. Hemen *hirur, beste* batzutan bortz ifar eta ekialdeko euskalkietan erabili ohi den bezala.

HORCIA.—117. «entrada haguits orcia» dio idazlak herstua adierazteko noski, oposaketan idazten baitu «entrada largoa».

IRLA.—104, 105. Ugarte, uhartea izendatzeko erromantze mailegua.

ISTIBOR.—130. Ontziaren alde bat adierazteko, gaztelaniaz *estribor*.

LANCHATU.—130. Aditza bezala erabiltzen du gure idazleak. Oso bitxia da erderazko «lancha, canot» adierazteko beti CHALUPA (txalupa) erabiltzen bait du. «Txalupa leihorrat lantxatu» dio.

LEIHOR.—106, 130... Legorra, lurra.

LECOA.—108. «legua, lieu» itsas neurria.

MUILLATU.—11. Argi dago gaztelaniazko *muelle* hitzetik sortu dela.

NECESSITATEAC.—125. Oso bitxia da gaztelaniazko mailegu hau, Detxeberrik oso ongi erabiltzen bait du beste leku batean hitz abstraktoak osatzeko atzizkia, *-tasun* atzizkia alegia *beldurtaçun* 132. orr. e.b.

OIHANA.—125. Ez dago erabilia *baso* zentzuan, Lhandek ematen duenean baizik. «Landes plus ou moins couvertes de bois» dio Lhandek, eta horrela izan daitezke Detxeberrik egiten dituen deskribapenak.

PATACHA.—116. Azkuek dioenez Gipuzkeraz eta Bizkaieraz erabili ohi da ontzi mota bat izendatzeko.

PARTETICAN.—116. Partetikan, handikan, Getaritik hasi eta Bidasoa Behera barrena Lesakaraino egiten den hizkeretan agertzen da /-tik/ atzizki hau (nondik alegia) /-n/ lekukotasuna adierazten duen atzizkiz indarturik.

PERIL.—113. Peril/perillik. Frantsesetik peril= arrisku. Axularrek ere erabiltzen du mailegu hau.

PILLOTU.—132. Hitz mailegua. Axularrek ere erabiltzen du. Gure idazleak «pillotu edo maistru» dio.

PORTU.—121. Ikus *caya*.

SEQUERA.—132. Testuinguruan badirudi lehorte, hondar pila edo horrelakoren bat. Ez dugu aurkitu hiztegi klasikoetan.

SENADY.—136, 128. Testuinguruan iskolkoa edo gaztelaniazko *ensenada* dela dirudi. 136. orr. «senadi edo portu» dio.

SOLAMENT.—116. Berriz ere gaztelaniazko mailegu bat.

TARTE HERCY BATEAN.—135. Tarte, leku hestu batean.

TREBESSERAT.—Trebesean, zailtasunak izan daitezke, baina testuingurua kontuan harturik gehienetan zeharka adierazten duela dirudi.

UNTCI BATEN LUCETASUNEAN.—107. Ontziek neurri jakinak eta berdintsuak beti izan bide zituzten, honelako espresioak ematen dituenean gure idazleak. Axularrek «UNTZI» erabiltzen du.

ZUNDA, ÇUNDA.—Gaztelaniazko *sonda* dirudi. Ontziek itsasoan ibiltzeko erabiltzen duten aparailu edo tresna noski.

ÇUNDAS MIRATU.—130. Berriz ere mailegua euskal izen jatorraren ordez. Baditu hauetaz gainera beste zenbait hitz eta espresio interesgarri gure idazleak. Ez da gure helburua dena erabat aztertzea, luzeegi joko luke eta liburuaren edizio kritiko bat litzateke.

Interesgarria litzateke era berean PIARRES DETXEBERRIri buruz ikertzea zerbait gehiago, ez bait da nahikoa Lapurteraz idazten zuela adieraztea, lekuko: erranen, egorri, bortz, aitzen gibeletarik (-rik atzizkia -tik atzizkiaren ordez agertzen omen da Lapaurtera klasikoan) gabaren pasatzekoz, eta horrelako hamaika esaldi liburuan zehar. Ikusi dugu era berean baduela erromantze hizkuntzetako eragina, batez ere gaztelaniarena. Zeri zor dio Detxeberrik eragin hori? Lapurtarrak eta Gipuzkoarrak elkarrekin ibiltzen ote ziren XVII mende horretan oraindik Canadako lurraldeetan?

Azkenik Detxeberrik izan zuen ospe eta itzala aztertu behar lirateke, oso harrigarria iruditzen bait zait ia irakurria izan ez den idazle honi, 1689. ean Ternuako frantses gobernadoreak Ternuako Mapa bat enkarguz eskatzea. Harrigarria dela diot ez bait dut uste agintari hori (agintariekin beti gertatu den bezala) gauza zenik gure idazle jator honen EUSKAL liburua irakurtzeko.

Donostian 1986.go urtarrilak 25.

BIBLIOGRAFIA:

ARRINDA, Anastasio. *Euskalerria eta Arrantza*. Donostia 1977.

AZKUE, R. M. de. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao, 1906. (Edic. facsímil. Bilbao, 1969).

BARKHAM, Selma. «The Basques: filling a gap in our history between Jacques Cartier and Champlain». *Canadian Geographical Journal*. Feb. march 1978.

BELANGER, René. *Les basques dans l'Estuaire du Saint-Laurent*. Québec 1971.

CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, M. *Los vascos en la pesca de la ballena*. San Sebastián, 1961.

COROMINAS, J. *Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana*. Madrid, dic. 1954 - mayo 1957.

DETCHEVERRY, Piarres «Dorre». *Liburu hau da Ixasoco Nabigacionecoa*. Baionan 1667. (Facsímile Donostia, 1985).

Estractos de las Juntas Generales de la R.S.B.A.P. 1777-75 81.

GRENIER, Robert. «16th Century Basque Whaling in America». *National Geographic*. Washington, july 1985.

HARRIET, M. M. *Dictionarioa Escuaraz eta Francesez*. Bayonan, 1761.
Dictionnaire François & Basque. Bayonan, 1761.

HUXLEY, Selma. vid. Grenier, R.

IMAZ, J. M. *La Industria Pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI*. (Documentos de la época). San Sebastián, 1944.

LARRAMENDI, M. de. *Diccionario Trilingüe*. San Sebastián, 1853.

LAXALT, Robert. vid. Grenier, R.

LHANDE, P. *Dictionnaire Basque-Français-Basque*. París, 1926.
L'Emigration Basque. Paris, 1910. (Auñamendi 1971, trad.).

SEOANE, Ramón. *Navegantes Guipuzcoanos*. Madrid, 1908.

TUCK, James A. vid. Grenier, R.

VILLASANTE, L. *Axularren Hiztegia*. Oinati, 1973.